

PUNTUA BERTSOLARITZAN

Pello Esnal

SARRERA

Bertsogintzan erabiltzen den puntua dugu txosten honetan aztergai. Hori aztertzeraz eta azaltzeraz mugatuko gara oraingoz, nahiz eta zabala goa izan gure egitasmoa: ahozko literaturako puntua ezezik, euskal errima ere aztertzea, alegia.

Helburu xumea du gure lan honek: bidea urratzen hasi eta zenbait oinarritzko kontzeptu garbi uztea. Gero gerokoak.

Bost ataletan banatu dugu lana. Lehenengoan, oro har aurkeztu dugu puntua: puntua zer den, oina eta potoa zer diren, nola gauzatzen den hoskidetza. Bertsolaritzan aurkitzen ditugun bi puntu-motez dihardugu bigarren atalean: puntu luzeaz eta laburraz. Euskal puntuaren ezaugarri nagusienetako bat dugu aztergai hirugarren atalean: bikoitza eta deklinagarri izatea. Puntu luzearen eta laburraren legeak azaltzen saiatu gara laugarren atalean. Estilistika dugu bosgarren ataleko gaia: gutxieneko legea betez, zer-nolako aldaerak eta joera bereziak aurki ditzakegun puntuaren erabileran.

Esan dezagun, halaber, didaktikotasunez jokatu nahi izan dugula gaia azaltzean. Ahalik eta argien eman nahi izan dugu mamiaren berri, adibide ugari erabiliz.

Era berean, ahalik zabalen eta egokien jokatzen saiatu gara adibi-deak aukeratzeko orduan. Horretarako, hogeita lau liburu izan ditugu adibide-iturri. Hona hemen, banan-banan, argitaratze-urtearen arabera zenbatuta. Zenbaki hori erabiliko dugu, hain zuzen, gero adibideen ondoren, horietako bakoitza nondik hartu dugun adierazteko. Honela irakurri behar da, beraz, lehen adibidearen ondorengo 24, 267. or. hori: Antonio Zavalaren Bilintxi buruzko liburutik hartuta dagoela adibideko bertsoa; 267. orrialdetik, hain zuzen.

1. Zavala, Antonio. 1961: *Bertsolarien txapelketa-1960* (Kuliska Sorta, 43-44). Zarautz: Itxaropena Argitaldaria.

2. Satrustegi, Jose Mari. 1965: *Bordel bertsularia*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
3. Zavala, Antonio. 1966: *Udarregi bertsolaria*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
4. Zavala, Antonio. 1967: *Bertsolari txapelketa (1967-VI-11)*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
5. Enbeita, Balendin. 1974: *Nere apurra*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
6. Lasarte, Manuel. 1975: *Gordean neuzkanak*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
7. Olaizola, Manuel "Uztapide". 1976: *Sasoia joan da gero*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
8. Aire, Ferrando "Xalbador". 1976: *Odolaren mintzoa*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
9. Casenave, Junes. 1978: *Ibañeta pastoral*. Oñati: Jakin.
10. Lekuona, Juan Mari. 1979: *Ilargiaren eskolan*. Donostia: Erein.
11. Zavala, Antonio. 1980: *Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-1-6)*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.
12. Dorronsoro, Joanito. 1981: *Bertsotan 1789-1936*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte.
13. Askoren artean. 1983: *Bertsolari txapelketa 1982*. Bilbo: Euskaltzaindia.
14. Dorronsoro, Joanito. 1988: *Bertsotan 1936-1980*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte.
15. Askoren artean. 1990: *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 89*. Donostia: Elkar.
16. Ormaetxea, Nikolas "Orixe". 1991: *Idazlan guztiak (I): Sorkuntzakoak*. Donostia: Etor.
17. Altuna, Patxi. 1992: "Tratado de métrica vasca (1872)" (Jose Ignazio Aranarena) in *Fontes Linguae Vasconum* 59: 119-164.
18. Zavala, Antonio. 1992: *Txirrita (Jose Manuel Lujanbio Retegi)*. (Auspoaren Sail Nagusia, 1.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.
19. Eizmendi, Inazio "Basarri". 1992: *Nere bordatxotik*. (Auspoaren Sail Nagusia, 2.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

20. Zavala, Antonio. 1992: *Pello Errota (Pedro Elizegi Maiz)*. (Auspoaren Sail Nagusia, 5.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

21. Zavala, Antonio. 1993: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*. (Auspoaren Sail Nagusia, 6.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

22. Zavala, Antonio. 1993: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (II)*. (Auspoaren Sail Nagusia, 7.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

23. Zavala, Antonio. 1993: *Xenpelar eta bere ingurua*. (Auspoaren Sail Nagusia, 8.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

24. Zavala, Antonio. 1993: *Bilintx (bertsoak eta bizitza)*. (Auspoaren Sail Nagusia, 9.) Tolosa: Auspoa Liburutegia.

1. PUNTUA

Ezinbesteko osagai du bertsoak puntua. Punturik gabe ez dago bertsoarik. Puntuarekin egingo dugu topo ahozko literaturako hainbat lanetan ere.

Hain zuzen, puntu hori dugu aztergai lehen atal honetan. Baina bertso gintzara mugatuko gara ia erabat.

PUNTUA ZER DEN

Llabur-llabur esanda, hoskidetza da puntua: zenbait bertso-lerroren amaierako hoskidetza.

Bertso-lerro batzuk puntudunak dira eta beste batzuk ez. Nolakoa den bertso-moldea eta nola idazten den.

Bertsoei dagokienez, normalean tartekatu egiten dira bertso-lerro puntudunak eta punturik gabeak, eta bigarrena izan ohi da puntuduna. Horixe da molderik erabiliena. Molde horretakoa da, esaterako, Bilintxen honako bertso ezagun hau:

Triste bizi naiz eta
illko banintz obe,
badauzkat biyotzian
zenbait atsekabe;
dama bat maitatzen det
bañan... aren jabe
sekulan izateko

esperantza gabe.

(24, 267. or.)

Baina bestela ere idatz zitekeen bertso hori. Eta halaxe idatzi zituen Xalbadorrek “Nigarra begian” saileko bertsoak, Bilintxek erabilitako doinu berean jarriak. Hona hemen lehenbizikoa:

Jainko maitea, nago noiz deituko nauzun
munduan zabaltzerat zerbait alaitasun;
ez dakit beti danik zer gaitik naukazun
gutarteko berri txar guzien oihartzun.

(8, 224. or.)

Bada, ordea, bestelako molderik ere. Eta horietako batzuk segidako zenbait bertso-lerro puntudunez daude osatuak. Oso ezaguna da bederatzi puntukoa. Molde horretan jarri zituen Xenpelarrek, esaterako, betroiaren bertsoak. Hona hemen lehenengoa:

Bertso berriak jartzen
orain naiz abian,
predikatzer a nua
Euskalerrian;
betroi bat artu nuen
Ernanin ferian,
galantziya egingo
zuela agiyan;
tristura begiyan,
beti auleriyan,
ez aren premiyan
nere fameliyan;
Senpelarrek dakizki
Errenteriyan.

(23, 215. or.)

Hamalau bertso-lerro dira eta bederatzi hitz puntudun, era berezi horretan banatuak. Baina bestela ere idatz zitekeen bertso hori. Xalbadorrek, adibidez, bederatzi lerrotan idatzi zituen “Mattin nigarrez ikusi dut” saileko bertsoak. Molde berekoak dira, baina ezberdin idatziak:

Mattin, zu atzo arte irriaren giltza,
gaur euskal mingainetan kurri zabilta;
izpiritua duzu argi ta zorrotza,
jend'artean omore pitzarazle gaitza;
gainerako gauza
ginaukazun hotza,
zure nigar-otsa

ginuen arrotza;
atzo ikusi dugu zure bihotza.

(8, 166. or.)

Dena den, era batera edo bestera idatzi, bertso-moldeak agintzen du zein lerro den puntuduna eta zein ez. Baina ez gara gehiago luzatuko.

Eta, aldeak alde, hemen bertsoei buruz esanak balio du, noski, ahozko literaturako beste piezetarako ere: pastoral, esaera zahar, kanta eta abar.

OINA

Normalean hitz batean doa puntua bertsoan. Halaxe da aurreko lau bertsoetan, eta halaxe Bilintxen "Izazu nitaz kupira" saileko bigarren bertso honetan ere:

Neskatxa gazte pare gabia,
apirilleko arrosa,
izarra beziñ dizdizariya,
txoriya beziñ airosa;
oraintxen baño gusto geiago
nik eziñ nezake goza:
zori onian ikusten zaitut,
nere biyotzak au poza.

(24, 237. or.)

OSA/OZA da bertsoaren puntua; eta **arrosa**, **airosa**, **goza** eta **poza** oinetan gauzatzen da. Horixe baita, hain zuzen, oina: puntua daraman hitza.

Beraz, hitz bakarrekoa izaten da normalean oina. Baina bikoia ere izan daiteke. Hona hemen, adibidez, Bilintxen beraren "Biyotz erituba" saileko laugarren bertsoa:

Nere amoriyua
aiñ fiña izanik,
beti goguan zauzkat
aztu gabetanik;
ez da mundu guztiyan
iñor kapaz danik,
dama, zu maitatzeko
ainbeste nola nik.

(24, 270. or.)

Bertso horrek, hain zuen, **ANIK** du puntua; eta bi hitzekoa azken oina.

Noizean behin, hiru hitzek ere har dezakete parte puntuak. Hala gertatzen da Uztapideren bertso erdi honetako azken bigarren puntuak:

Len bezelako alaitasunik
aldi ontan bai al da or?
Zu burutikan kendu eziñik
emen nabil ni, Xalbador.

(7, 278. or.)

POTOA

Hoskideak izan behar dute oinek. Arau hori bete behar du bertsoak. Eta beste hau ere bai: hitz ezberdinak izan behar dute oinek; eta berdinak badira, esanahi ezberdinekoak izan beharko dute. Esanahi bereko oin berdinak erabiliz gero, poto egiten du bertsolariak. Eta huts egitea da poto egitea: bertsoak bete behar duen arau bat ez betetzea.

Hona hemen, adibidez, bertso potodun bat. Uztapidek kantatua da, euskararen gainean, 1960ko bertsolari-txapelketa nagusian. Bi aldiz erabili zuen **apaña** oina, poto eginez:

Gai au ezta izandu
nere atsegiña,
baña Irigoyen'ek
du itzegiña;
kantatuko ez banu,
danentzako miña;
esango lutekena:
ori ezta diña.
Ni enaiz apaña,
bertsolai apaña,
baña in nai azaña
luzaturik zaña;
euskeragatik ein det
nere alegiña.

(1, 116. or.)

Ez da poto egitea, ordea, arestian adierazi dugunez, esanahi ezberdineko oin berdinak erabiltzea. Hona hemen, esaterako, bertso baten hasiera:

Iritsi zaigun berria
ez da batere berria.

Berdinak dira bi oinak: **berria**. Berdinak formaz, baina ezberdinak esanahiaz. Beraz, bertso horretan ez dago potorik.

HOSKIDETZA

Hoskidetza da puntua. Eta hoskidetza hori batzuetan erabatekoa izaten da: hots-berdintasuna, alegia; beste batzuetan, berriz, ez hain erabatekoa, nahiz eta beti kidetasun handikoa izan.

Bertsoetako puntuari dagokienez, bestalde, bada azpimarratu beharrekorik: hoskidetza erabatekoa ez denetan ere, aldea handiagoa izaten dela irakurlearen begiarentzat entzulearen belarriarentzat baino; izan ere, entzuteko dira bertsoak, irakurtzeko baino areago. Eta, horrela, hoskidetza betekoak dira belarriarentzat, adibidez, **bakea** eta **atea** hitzak, nahiz eta begientzat desberdinak izan. Berdin gertatzen da honako hitz-pare hauekin ere: **ezti**, **noski**; **egin**, **dadin**; **errenta**, **herrenka**...

Kontsonanteen artean soilik gertatzen dira hoskidetzak. Honako hauek dira, hain zuzen, kontsonante hoskideak:

– **b, d, g** eta **r**: **traba**, **bada**, **laga**, **hara**.

– **p, t** eta **k**: **menpean**, **urtean**, **bakean**.

– **s, z, x, ts, tz** eta **tx**: **osa**, **poza**, **goxa**, **hotsa**, **hotza**, **txotxa**.

– **n** eta **m**: **lana**, **bana**, **ama**, **darama**.

Hoskide dira **rr** eta **rb**, **rb** eta **rg** kontsonante bikoitzak ere: **arbi**, **erdi**, **argi**, **harri**.

Honako baliokidetza hauek erabiliko ditugu aurrerantzean, hoskidetza horiek adierazteko:

– **S** (letra larriz): **s, x** edo **z** hotsak adierazteko.

– **tS** = **ts, tx, tz**

– **Z** = **s, x, z, ts, tx, tz**

– **R** = **b, d, g, r**

– **T** = **p, t, k**

– **N** = **n, m**

Zenbaitetan, kontsonante “gehigarri” batzuk aurkituko ditugu puntuan, baina hoskidetza galerazi gabe: **l, n** edo **r** kontsonanteak, hain zuzen. Esaterako, honako bertso honetan:

Erreka-bazterrean
ernetzen da altza,
hark bezela guk ere
orriak altxa.

Euskal Herri gurea
 da gure mahatsa,
 nahiz ta askatasunez
 ez dan aberatsa.
 Hau destino latza,
 askotan garratza,
 gakoa hor datza
 aldatzeko martxa,
 behera muga lotuak
 gora esperantza.

(11, 98. or.)

Era berean, hoskideak dira **hotza**, **hortza**, **hontza** eta **oholtza**; eta **hitzza**, **ekintza**, **dabiltza**...

Baina **p**, **t** eta **k** kontsonante aurreko **s** eta **z** kontsonanteek, ordea, aldatu egiten dute hotsa eta hoskidetza: beraz, elkarrekiko hoskidetza urrunxeagokoak dira **bete** eta **beste**, edo **lotu** eta **moztu**; eta elkarrengandik hurbilago daude hoskidetzaz honako bi hitz-multzo hauek: batetik, **urte**, **bete**, **bake** eta **menpe** eta, bestetik, **eske**, **dituzte** eta **ospe**.

2. BI PUNTU-MOTA

Esan dugunez, hoskidetza da puntua: batzuetan erabateko hoskide-tza eta beste batzuetan ez hain erabatekoa, nahiz eta beti izan kidetasun handiko. Baina, hala izanik ere, bada alderik zenbait punturen artean. Ez dugu puntuak osatzeko modu bera ikusten bertso guztietan. Batzuetan luzeagoa da puntua, beste batzuetan laburragoa; batzuetan beteagoa, besteetan azalekoagoa... Puntuak osatzeko era desberdin horiek ditugu bigarren atal honetan aztergai. Zer alde dagoen puntu batzuen eta bestearen artean. Zertan diren antzeko eta zertan ez. Eta, azken batean, zenbat puntu-mota desberdin dauden.

Funtsean, bi puntu-mota bereizi ditugu bertsoetan, nola bat-batekoetan hala jarrietan ere: batetik, gaurko bat-bateko bertsogintzan erabat nagusitu den puntu luzea eta, bestetik, puntu laburra. Puntu labur honekin egiten dugu topo, hain zuzen, zenbait kantatan ere. Horrexegatik erabili ditugu horien zati batzuk ere adibideetan.

BI ADIBIDE

Oro har, bi puntu-mota erabili ohi dituzte bertsolariek. Luzeran dago bien arteko aldea: bata laburragoa da bestea baino.

Adibidez, hona hemen bi bertso, molde berekoak eta garai berekoak: Joan Bautista Elizanbururen (Sara, 1828-1891) “Ikusten duzu goizean” sailekoa lehena, 1861ean jarria; eta Xenpelarren (Errenteri, 1835-1869) “Ezkondu eta ezkongai” sailekoa bigarrena, 1867an jarria:

Piarres ene semea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat ernea:
goizean goizik bazken erdira
badarama artaldea,
segituz ene bidea,
nola baitu egitea,
ez du galduko etxea.

(12, 74. or.)

Zarra bezela gaztia,
bat beziñ oker bestia,
beti barrendik eskia;
lenago janak eztu beteko
utsa dagan estia;
au gure pena tristia,
nai degu irabazia,
orrekin dago nastia.

(23, 165. or.)

Garaikideak eta moldekideak izatea ezezik, bi bertsoek badute besterik ere amankomunean: **gaztea** oina (**gazia** Xenpelarrean). Baina hor amaitzen da bien oinen arteko berdintasuna; izan ere, puntu ezberdinekoak dira: **ea** du lehen bertsoak puntua eta **STia** bigarrenak; azkeneko bi hotsetara mugatua lehenengoa; bi hots gehiago dituena bigarrena. Hitz batean, puntu laburragoa du lehenak; luzeagoa bigarrenak.

BI PUNTU-MOTA NAGUSI

Puntuz ezberdinak izaki, bi puntu-mota ezberdinen adibide ere badira aurreko bi bertso horiek: puntu laburrarena lehenengoa eta puntu luzearena bigarrena. Baina argi ditzagun “laburra” eta “luzea” kontzeptuak.

Puntu laburra eta luzea

Puntu laburra eta puntu luzea. Horrela deituz bereiziko ditugu euskal bi puntu-motak; izan ere, arestian ikusi dugunez, lehenengoa labu-

rragoa da bigarrenaren aldean, baldintza berdinetan. Esaterako, oin bera erabiliz, **gaztea**, **ea** puntua egiten du Elizanburuk eta **ztea** puntua Xenpelarrek.

Baina nahasbide ere izan ditzakegu “laburra” eta “luzea” hitzak, ondo ulertu ezean. Argi ditzagun, beraz. Puntu laburrak, izan ere, puntu luzeak baino silaba gehiago izan ditzake: esaterako, bada silaba t’erdiko puntu laburrik (**ian: biharamunian, batian, itzalian, gainian, trukian**) eta silaba erdiko luzerik (**ai: ai, ezkongai, bai, jai**). Izan ere, labur edo luze izatea ez dagokio puntu osoari, puntuaren erroari baizik, hirugarren atalean ikusiko dugunez.

Eta, besterik gabe, ikus ditzagun puntu banaren beste zenbait adibide. Berriri ere bertsoak batik-bat erabiliko ditugu adibidetzat. Baina bestelakoz ere baliatuko gara.

Puntu laburra

Gaur egun, apenas erabiltzen den puntu laburrik bertsoetan. Puntu laburreko bertsoaren bat edo beste entzungo dugu agian plazetan, baina konta ahalak. Beste hainbeste gertatzen da bertso-paperetan ere. Zenbait urtetan atzera egin eta bertsolari jakin batzuengana jo beharko dugu, hain zuzen, puntu laburreko bertsoak aurkitzeko.

Puntu laburra erabili ohi zuen Pierre Etxahun bertsolari zuberoarrrak (Barkoxe, 1786-1862). Harena da, hain zuzen, “Ahaide delezius huntan” saileko honako bertso hau:

Etxahun, nausi famatia,
galdü dük libertatia;
eta orai dük trixtezia,
harekin ezin-bestia,
hire ixter-begiek
goihera die erria;
amuinan behar dük ebili, edo
hartü pelegri bidia.

(12, 49. or.)

“Emezortzi serore” kanta dakar Orixek bere *Euskaldunak* poeman. Eta honela dio hirugarren ahapaldiak:

Oillo beltz eder orrek daukan egitea!
Emakume zârrenak sorgin biurtzea.
Karakak egin eta, aren arroltzea
bero-bero da, baiñan laister du oztea.

(16, 133. or)

Puntu laburra erabili ohi zuen nagusiki Balendin Enbeitak ere (Muxika, 1906-1986). Harena da, hain zuzen, "Mutilzar bateri" saileko bertso hau:

Toki askotan emazte billa
jo izan dozu atia,
patxadazkoa izan baziñan
topauko zendun andria;
orain ordia
zuri alabia
nok dauka emon guria?
Belu dabizen gau-txoriari
bat be emon ez da bakia.

(5, 108. or.)

Ezaguna da, bestalde, puntu laburreko honako eliz kanta hau ere:

Agur, Jesus Ama,
Birjina Maria,
agur, itsasoko izar
diztiratzallia,
agur, zeruko eguzki
pozkidaz betia,
agur, pekatarien
kaia ta estalpia.

Eta puntu laburrekoak dira, gainera, beste zenbait bertsolari eta kantariren bertso eta ahapaldiak ere.

Baina "puntu labur" kontzeptuak merezi du argibiderik; bai baita hemen ikusitakoak baino puntu laburragorik ere. Oro har, pastoraletan erabilia, adibidez. (Baina bada horrelako puntu labur-laburra erabilitako bertsolaririk ere: Etxahun-Iruri (Iruri 1908-1979) pastorgile eta bertsolari zuberotarra, besteak beste.) Hona hemen, esaterako, Ibañeta pastoraletik hartutako bi ahapaldi segidako:

Ordüko Otso-Zantxezek,
Uskal Düke Erregiak,
Arrunt hitzartu zütian
bühürt litian Uskaldünak.

Basak bezala Frankuak
Iruinea Hiriala
Zalhe ützültzen dirade
itxuski mendekatzera.

(9, 19. or.)

Laugarren atalean ikusiko dugunez, “puntu laburra” izatera ere ez dira iristen **Erregiak / Uskaldünak** eta **Hiriala / mendekatzera** oinak. Txosten honetan “puntu labur” esatean, ez dugu esan nahi, beraz, puntu labur hau dela erabili ohi den laburrena.

Puntu luzea

Lehen esan dugunez, ia-ia puntu luzea besterik ez da erabiltzen gaur egun bertsoan, bai bat-batean, bai bertso jarrietan. Baina ez da gaur-gaurko joera, ordea; lehendik ere datorrena baizik, ondorengo adibideetan ikus dezakegunez. Dena dela, puntu luzea ez da bertsoetara soilik mugatzen. Bada puntu luzea darabilen poetarik ere: Juan Mari Lekuona (Oiartzun, 1927), Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) eta Xabier Lete (Oiartzun, 1944), besteak beste.

Puntu laburreko bertsoak eta ahapaldiak aukeratzeko, bestalde, lehengo irizpide bera erabiliko dugu orain ere: **gaztea** oinaren puntu berekoa izatea. Hala, errazago ohartuko gara zer-nolako aldea dagoen bi puntu-motaren artean.

Udarregi bertsolariarena (Aia, 1825-Usurbil, 1895) da lehenengo bertsoa; haren “Asto demaren bertsoak” sailetik hartua.

Markos argiña eta
Maraita bestia,
desiatzen zan oiek
plazan ikustia;
nai zuten marka on bat
an erakustia,
asto diabru aiek
portatu ezta.

(3, 121. or.)

Pello Errota bertsolariak (Asteasu, 1840-1919) jarria da “Amasako sega-apustua” saileko honako bertso hau:

Errespuesta nik eman niyon:
“Aizazu, dama gaztia,
ez nuan uste modu orretan
desanparatzen astia;
zurekin nere oraindañoko
itzak onela ezta,
borondatia kunpli dedilla

merezi badet uztia”.

(20, 125. or.)

Txirrita bertsolariak (Hernani, 1860-Alza 1936), berriz, honako bertso hau sortu zuen “Nere andreari” sailean:

Ogei ta amar urte daukazkit,
 oraindik franko gaztia,
 eta andriak bi gutxiago,
 au bizi-modu tristia!
 Ark neri egiñ dizkidan gauzak
 esatekuak ezta,
 txurrero batek engañatuta
 eraman dit emazia.

(18, 479. or.)

Manuel Olaizola ‘Uztapidek’ (Zestoa, 1909- Oiartzun, 1983) honela dio “Jaungoikoaren legeko aginduak” saileko bertso batean:

Bederatzigarren agindua
 emen daukagu bestia,
 esaten du ez desiatzeko
 beste baten emazia;
 ori ondo ikusita
 dago galerazita
 zarra bezela gaztia;
 bestela gero kostako zaigu
 zerua irabazia.

(7, 217. or.)

Inazio Eizmendi ‘Basarrirena’ (Errezil, 1913) da beste bertso hau, “Entzun, gurasoak!” izenburupean jarria:

Gaztelera, frantzes,
 inglesa bestea,
 ta obe alemanez
 lenbailen astea.
 Gauzik ederrena da
 danak ikastea,
 bañan ez nork berea
 zokoan uztea.

(19, 246. or.)

Manuel Lasartek (Leitza, 1927), berriz, honako bertso hau jarri zuen “Aitona gixarajua” sailean:

Botika eta trastia

artuaz, lengo astia
 nolabait ere pasa det baño
 naikua tristia;
 oñazea ta pestia,
 eziña ta desgastia,
 garai batean ez nuen uste
 ola eskastia.

(6, 140. or.)

Gabriel Arestik ere (Bilbo, 1933-1975) puntu luzea erabili zuen, besteak beste, "Bizkaiko aberatsak" izeneko bertso-sailean:

Hura ikusi eta
 dendari guztiak
 zaharrak geldi eta
 korrikan gaztiak;
 saldu nai dizkiote
 makailu bustiak
 guerdiko izarrak
 eta eguzkiak;
 inor engainatzeko
 nolako trastiak!

(14, 279. or.)

Azkenik, hona hemen Xabier Amurizak (Zornotza, 1941) 1982ko bertsolari-txapelketako azken saioan Lopategiri kantatutako bertsoa:

Hauxe da orain sortu
 diguten nastea
 bata lengoa eta
 ni ez gaztea
 nai zuten hemen lagun
 hauek ikustea
 neure auzoa haiz ta
 ez egon tristea
 herri bat askea
 baita emaztea
 lagunen eskea
 hori nik ustea
 ez diat sentituko hik
 irabaztea.

(13, 318. or.)

Era berean, puntu luzekoak dira, besteak beste, Bilintx (Donostia, 1831-1876), Pedro Maria Otaño (Zizurkil, 1857- Argentina, 1910) eta gaurko ia-ia bertsolari guztiak.

Puntu laburraren eta luzearen oinak

Aurreko adibide horietaz baliatuz, aldera ditzagun puntu laburretan eta luzeetan erabilitako oinak. Alderagarriak baitira, denek **gaztea** oina puntukidetzat onartzen duten neurrian.

Hona hemen puntu laburreko bertsoetan erabilitako oinak: **alabia, andria, arroltzea, atia, bakia, betia, bidia, biurtzea, diztiratzallia, egitea, erria, estalpia, ezin-bestia, guria, libertatia, Maria, ordia, oztea.**

Puntu luzeetako bertsoetan, berriz, honako oin hauek erabili dira (oin bakoitza zenbatetan azaldu den esan nahi du parentesi arteko zenbakiak): **askea, astia** (astea), **astea/astia** (hastea), **bestea/bestia** (2), **bustiak, desgastia, eguzkiak, emaztea/emaztia** (2), **erakustia, eskastia, eskea, eztia** (ez dira) (3), **gaztea/gaztia** (3) /**gaztiak, guztiak, ikastea, ikustea/ikustia, irabaztea/irabaztia, nastea, pestia, trastia/trastiak, tristea/tristia** (2), **ustea, uztea/uztia.**

Begien bistan dagoenez, bi puntu-motek ez dituzte oinak berdin erabiltzen. Puntu laburrean, kide dira **ea** amaiera duten oinak; horregatik askoz ere oin gehiago erabil daitezke elkarrekin, eta askoz ere aukera zabalagoa ematen dute zerbait esateko. Puntu luzean, berriz, gehiago eskatzen zaie hitz hoskideei: **STea** edo **STia** amaierako izatea; horregatik, askoz ere oin gutxiago erabil daitezke elkarrekin, eta askoz ere maizago azaltzen dira, gainera.

Baina puntu luzeak badu zerbait bere alde: gutxiago izaki, errazago hartzen direla gogoan; eta,aldi berean, erabilterrazagoak ere badirela, errazago gogoratzen diren neurrian. Ahozko kulturaren aztarnak dira ezaugarri horiek: oroimena beste euskararirik ez duen kulturaren arrastoak.

TARTEKO PUNTU-MOTA: HIRUGARREN BIDEA?

Bi puntu-mota horiek hor egonik ere, ez dira beti argiak bien arteko mugak. Batzuetan moztu egiten da puntu luzea eta bestetan luzatu puntu motza; eta, hala, nabartu bien arteko muga.

Arrazoi asko egon daitezke mugak hurbiltze horretan. Besteak beste, bi puntu-moten arteko eragina, eta dena delako kantagile eta bertso-lariaren joera.

Bi adibide

Basarriren bertsoeran sumatzen da batzuetan puntu luzea laburtzeko joera. Hona hemen adibide bat, arestiko bertsoen harikoa puntuz. Afrikan jarria da bertsoa, 1943an:

Bakartasunez illunki nabil
arantz mingotsez betea,
unetxo batez aztu ezifñik
gure Donosti maitea.
Otaño'n gisa beti zugana
dijoa oroipen nerea:
“alaipide bat bakarrik daukat
amets etan sinistea,
zu ikusteko noiznai aski det
nere begiak ixtea”.

(19, 106. or.)

Pedro Maria Otaño (Zizurkil, 1857- Argentina, 1910) bertsolaria aipatzen du Basarrik, eta haren bertso batean oinarrituz idazten berea. “Amerikatik Jose Bernardori biralduak oraiñ dala bost urte” (1889) sailekoa da bertso hori eta Donostiari jarria. Hona hemen:

Urruti zaude eta zalla da
ni zugana irixtia,
onenbeste nai dizun batentzat
zer bizimodu tristia!
Alaipire bat bakarra daukat
ametsetan sinistia:
zu ikusteko noiznai asko det
nere begiak ixtia.

(21, 188. or.)

Puntu luzekoa da Otañoaren bertsoa; laburragoa, ordea, Basarrirena, nahiz eta erabat laburra izan ez. Izan ere, bi oin ditu **iStea** hoskideak, beste bi **tea** dira puntuz eta bat **ea**.

Antzeko beste zenbait bertso

Beste honako bertso hau, berriz, Joan Etxamendi ‘Bordel’ (Luzaide, 1792-1879) bertsolari nafarrarena da, “Ene andregaiari” sailetik hartua:

Abertitzen zaitut
 andere gaztia,
 pizariz ar dezazun
 banitatia.
 Fortunaz izan banu
 nik borondatia,
 ez omen zinazteken
 nitaz hautatia.
 Aise da, maitia,
 kunkil izaitia
 urgulu hartzia;
 oraino zerbait bada
 gogoan pastia.

(2, 72. or.)

Ikus daitekeenez, Basarriren arestiko bertsoaren antzekoa da puntuz: puntu laburra baino luzeagoa darabil, baina luzea izatera iritsi gabe. Halakoxea da, era berean, Xalbadorren "Mattin nigarrez ikusi dut" sailako honako bertso hau ere:

Euskal haurrak etxetik urrun joatea
 da mendeak dakarren ezin-beste;
 jakinik baduela zorion-partea,
 hura ezin bilatuz dabila gaztea;
 gure gizartea,
 herria, etxea,
 semetaz hustea,
 zer gauza tristea!
 Urrikal zakizkigu, Jainko maitea!

(8, 168. or.)

Baita Juan Mari Lekuonaren honako hau ere:

Behatz lodiak bota
 du bere zortea;
 behatz lodiak bota
 du bere zortea;
 goizean hil digute
 gudari gaztea,
 ai!, oi!, ei!,
 gudari gaztea...
 Behatz lodiak bota
 du bere zortea.

(10, 36. or.)

ONDORIO GISA

Itzul gaitezen atal honen hasieran esandakora: “Oro har, bi puntu-mota erabili ohi dituzte bertsolariak”. Atala amaitzean, egoki izango da zenbait zertzelada eranstea.

- Ñabardurak ñabardura, bi puntu-mota nagusi bereiz ditzakegu bertso gintzan, nahiz eta bien artekoa ere aurki dezakegun.

- Iparraldeko zenbait bertsolariengan (Etxahun-Irurirengan, esaterako) eta bertso gintzaz kanpo (pastoraletan, batik bat), bada orain arte puntu laburra deitu duguna baino laburragoa.

- Normalean, puntu-mota bera erabiltzen du bertsolari batek bere bertso gintzan, nahiz eta bilakaerarik ere ikusten den urteetan zehar. Baina ez ditu aldi berean bi puntu-mota erabiliko.

- Oro har dihardugu atal honetan; baita txosten osoan ere. Eta ez dugu beste aukerarik izan. Baina ez litzateke gaizki etorriko, noski, autoretz autore eginiko azterketa, bakoitzaren puntuak erabiltzeko era eta bilakaera (bilakaerarik badenean) zehazteko.

Dena den, baliagarri iruditzen zaigu atal honetan esana; eta, ñabardurak ñabardura, horren arabera jarraituko dugu datozen orrialdeetan.

3. PUNTU BIKOITZA

Hizkuntza atzizkiduna da euskara: etengabe baliatzen da dena delako atzizkiz; eta puntuak osatzean ere bai, jakina. Eta hori izan behar da derrigor kontuan, puntua ulertuko bada.

Beraz, bi zati bereiz ditzakegu puntuak: erroa eta atzizkia. Horregatik esan dezakegu bikoitza dela puntua: bi zatikoa, alegia. Bikoiztasun hori funtsezkoa du puntuak. Bikoiztasun hori aztertuz jabetuko gara puntuaz.

Eta bikoiztasuna aztertzeak, jakina, bi zatiak aztertzea esan nahi du. Horixe egingo dugu atal honetan, erroa eta atzizkiak bereizi ondoren.

PUNTUA: ERRO ETA ATZIZKI

Deklinabidea dela eta, euskaran bi zati bereiz ditzakegu izenetan eta izenlagunetan: erroa eta atzizkia. Jakina denez, “herrian” hitzak “herri”

du erro eta "an" atzizki: herri-an. Era berean, honelako zatiketak ere egin ditzakegu: gozo-a, bertsolari-ak, bat-ean, itsusi-ko, kale-etan...

Zatiketa bera aurkitzen dugu puntuan. Beraz, erroa eta atzizkia bereiz ditzakegu puntuan ere: **gizon-ak**, **egon-ak**, **zorion-ak**, **on-ak**; **bete-an**, **bake-an**, **urte-an**, **urpe-an**... Atzizkirik gabeak, berriz, **0** batez adieraziko ditugu: **gizon-0**, **zorion-0**; **bete-0**, **bake-0**...

Baina oin guztiak ez dira izen eta izenlagun. Bestelakoak ere izan daitezke, jakina: izenorde (**hautan**, **bera**, **nik**...), aditz (**izan**, **ekarriko**, **dituzte**...), adizlagun (**maiz**, **bai**, **hemen**...), juntagailu (**eta**, **edo**, **baina**...) eta interjekzio (**ai!**, **ja-jai!**, **danba!**...). Horietako batzuek ez dute atzizkirik onartzen eta beste batzuek bai. Baina atzizki guztiak ez dira berdinak.

ERROA

Hiru erro-mota

Hiru erro-motako oinak bereiz ditzakegu euskal puntuan: 1) **a** bokalez amaituak, 2) **a** ez den bokalez amaituak eta 3) kontsonantez amaituak.

Lehenengo motako erroa dute, adibidez, honako hitz hauek: bezpera, bezperak, bezperan, bezperako...; kanta, kantak, kantan, kantako...

Bigarren motako erroa dute, esate baterako, honako hitz hauek: harri, harria, harriak, harrian, harriko...; itsusi, itsusia, itsusiak, itsusian, itsusiko...; urte, urtea, urteak, urtean, urteko...; aste, astea, asteak, astean, asteko...

Hirugarren motako errima-erroa dute, besteak beste, honako hitz hauek: lan, lana, lanak, lanean, laneko...; azal, azala, azalak, azalean, azaleko...; behar, beharra, beharrak, beharrean, beharreko...; bihotz, bihotza, bihotzak, bihotzean, bihotzeko...

Erroak

Ondoren doaz, banan-banan, puntu luzean gehien erabiltzen diren puntu-erroak, motaz mota sailkatuta, arestian esandakoaren arabera. (Ez ditugu puntu laburrekoak emango; horiek berak baitira, baina hasierako hotsik gabe.)

A bokalez amaituak:**aRa:** ikara, bolada, aldaba, alaba, dardara...**eRa:** bera, minbera, aukera, zera, arreba...**iRa:** distira, gida, segida, gupida...**oRa:** denbora, kanpora, proba, boga...**uRa:** ura, hura, itxura, duda, muga...**aTa:** zarata, matraka, aldapa, kanta, hanka, aparta, alta...**eTa:** beta, seta, arreta, erreka...**iTa:** bisita, zita, musika, barrika, pipa...**oTa:** soka, borroka, errota, erronka, koloka, zopa...**uTa:** konduta, zurruta, turuta, kulunka, kulpa...**eSTa:** festa, kezka, neska, ezpa...**A ez den bokalez amaituak:****Re:** jabe, alde, mesede, mende, lege, bide, hobe, gure...**Te:** ate, bake, arte, kalte, maite, aterpe, merke, menpe, urte, truke...**STe:** aste, eske, triste, gerizpe, oste, ozpe, uste...**Ri:** kantari, bertsolari, ogi, ongi, irudi, zubi...**Ti:** kezkatu, zapi, aulki, aurki, egoki, egunsenti, txiki, poliki, eduki...**STi:** aski, azpi, ezti, garesti, izpi, eguzki, busti...**ai:** alai, bai, gai, jai, kai, nahi...**RRi:** harri, argi, garbi, herri, irri, horri, urri...**Ro:** salbo, gero, giro, igo, ondo, agudo...**To:** gako, franko, Jainko, kanpo, gaurko, lepo, orpo...**STo:** asto, arrasto, baiezko, begizko, hosto, hauspo...**Ru:** zeru, eredu, modu, buru, mundu...**(Tu):** zaku, leku, gertu, meritu, pilotu, aholku, mutu...**STu:** gastu, esku, estu, txistu, bekozko, apustu...**Kontsonantez amaituak**

Lau multzo handitan biltzen dira kontsonantez amaitutako puntu-erroak: **N** (n, m) hotsez amaituak, **I** kontsonantez amaituak, **r** kontsonantez amaituak eta **Z** (s, x, z, ts, tx, tz) hotsez amaituak. Eta multzo bakoitzak beste lau zapabost sail ditu, azkeneko bokalaren arabera. Hona hemen, banan-banan:

aN: lan, jan, izan, esan, eman, eraman, dan, etzan...

eN: lehen, den, kemen, izen, zuzen, eten, irten, azken...
iN: min, egin, atsegin, berdin, urdin, ezin, jakin...
oN: on, zorion, gizon, egon...
uN: lagun, ezagun, ihardun, euskaldun, egun, ilun, bigun...

al: ahal, azal, hegal, itzal, formal, hutsal...
el: txartel, epel, txepel, gibel, horbel, goibel, ustel...
il: hil, abil, isil, opil, murgil, mutil, gurpil...
ol: odol, ohol, oskol...
ul: ahul, mardul, eztul...

ar: indar, behar, negar, bizar, txar, zoritxar, zahar...
er: eder, oker, alfer, bazter, esker, ezker...
or: zor, gogor, lehor, bizkor, alor...
ur: agur, apur, zakur, egur, zimur, lur, beldur...

aZ: erraz, jolas, solas, latz, arrats, orratz, urrats...
eZ: amets, babes, juez, aldrebes, beltz, saihets...
iZ: hitz, bortitz, murriz, mintz...
oZ: poz, sos, hotz, hots, motz, bihotz, arrotz, zorrotz...
uZ: huts, gorputz, ahuntz, umezurtz, zaputz...

ATZIZKIA

Hiru atzizki-sail

Atzizki asko erants dakizkieke puntu-erroei: euskal hitzei –izen, izenlagun, izenorde, aditz eta abarrei– erants dakizkiekeen guztiak. Baina bi motakoak dira funtsean atzizki horiek: 1) izen-atzizki edo izenlagun-atzizki eta 2) adizki-atzizki.

Lehenengo motako atzizkiak dituzte, esaterako, honako hitz hauek: berezia, gizona, txanda, atea, zabalak, kanta, ustea, zuzenean, bezperan, dotoretan, garretan, penatan, sariz, odolez, euskaraz, aldeko, bihotzeko, sarrerako, gerokoa, izenekoa, aukerakoa, eskurik, indarrik, lotsarik...

Bigarren motako puntu-atzizkiak dituzte, besteak beste, honako hitz hauek: hasten, zuzentzen, etsita, eginda, bustiko, gizendu, sartu, helduta, ibiltzeko...

Badira, gainera, lehenengo eta bigarren motako puntu-atzizkiak: aldi berean izen-atzizki eta aditz-atzizki direnak. Horietakoak dituzte, adibidez, honako hitz hoskideok: herriko, jarriko; beterik, aterik; sartuz, tratuz...

Baina, mota bateko edo besteko izan, hiru puntu-sail bereiz ditza-kegu, puntu-atzizkiaren arabera: 1) atzizkirik gabeak (zarata, sarrera, ikusi, ate, busti, gabe, herri, gero, jai, jaio, ilun, isil, gogor, bihotz...), 2) **A** eta **AK** atzizkidunak, (zarata, sarrerak, ikusia, atea, bustia, gabea, herria, jaia, jaioa, ilunak, isilak, gogorak, bihotzak...) eta 3) gainerako atzizki-
dunak (zarataz, sarrerarik, ikusiko, atean, bustitan, gabeetan, herririk, ge-
roko, jaikoa, jaiotzen, ilunean, isildu, gogorretan, bihotzik...).

Puntu-atzizkiak

Azal ditzagun ondoren, hiru sailetan, puntu-atzizkirik erabilienak:

0: kanta, ate, bizi, izan, odol...

A: kanta, atea, bizia, izana, odola...

AK: kantak, ateak, biziak, izanak, odolak...

AN: kantan, atean, bizian...

EAN: izanean, odolean...

DA: izanda...

GO: izango...

DU: izan du, odoldu...

TA: bizita...

TU: kantatu, bizitu...

TAN: kantatan, atetan, bizitan...

ETAN: kantetan, ateetan, bizietan, izanetan, odoletan...

Z: kantaz, atez, biziz...

EZ: ateez, biziez, izanez, odolez...

IK: izanik, odolik...

RIK: kantarik, aterik, bizirik...

KO: kantako, ateko, biziko...

KOA: kantakoa, atekoa, bizikoa...

EKO: izaneko, odoleko...

EKOA: izanekoa, odolekoa...

TE: izate...

TEN: izaten...

TZE: kantatze, bizitze, odoltze...

TZEN: kantatzen, bizitzen...

Gehiago ere luza dezakegu zerrenda. Baina hor daude atzizkirik erabilienak. Dena den, argi ditzagun honako hauek:

- Adibideetarako, erroaren amaieraren arabera aukeratu ditugu bost hitzak: 1) **kanta:** berezko **a** bokalez amaitua, 2) **ate**

eta **bizi**: **a** ez beste bokal batez amaituak eta 3) **izan** eta **odol**: kontsonantez amaituak.

- **Kanta, bizi, izan** eta **odol** hitzek, bestalde, izen-atzizkiak eta aditz-atzizkiak har ditzakete. Horrexegatik hautatu ditugu: jokabide bikoitz hori adierazteagatik.

- Atzizki gehiago har ditzake zenbait atzizkik. Esaterako, **du** atzizkiak: dua, duak, duta, duaz...; **tu**: tua, tuak, tuta...; **ko** atzizkiak: koa, koak, koan, kotan, koetan, korik...; **te**: tea, teak, tean, terik...; **tze**: tzea, tzeak, tzean, tzerik...

- Bada atzizki bat, puntu-erroen zerrendan ere eman duguna: **tu**. Berdin izan daiteke puntu-erro (gertu, pilotu, mutu...) edo puntu-atzizki (kantatu, edertu, bizitu, lotu, lortu...). Hala jokutzen du beste zenbait hizkik ere. Horrelakoetan, aukeratu beharra dago. Eta hala egin dugu hemen. Izan ere, adibide gisa utzi dugu **tu** hori erroen zerrendan; parentesi artean utzi ere, han behin-behineko dagoela adieraztearren.

- Ez da beti ematen, ezta hurrik eman ere, hemen azal dutako bereizketa hain argi eta zehatz: batetik erroa eta bestetik atzizkia. Baina sistema baliagarria iruditzen zaigu, nolabait, puntua sistematizatzeko. Azter ditzagun, adibidez, bizpahiru oin.

- **Txanda**. Berez, **a** bokalez amaitutako hitza da eta atzizkirik gabea. Baina gure sailkapenaren arabera, **izanda** oinaren pareko jotzen dugu eta **txan-da** bezala zatitu, **an** puntu-erro eta **da** puntu-atzizki balira bezala.

- **Ditu**. Adierazi berria dugu, **tu** hizkiaz aritzean. **Di-tu** baltz bezala bereizten dugu, **bizi-tu** hitzaren modura, nahiz eta bereizi ezina izan.

- **Maiz**. Garai-z eta alai-z oinen modura osatuta jotzen dugu: **mai-z**. Ez dago esan beharrik, noski, bereizketa hori ere guttiz behartuta dagoela, **nai-z** oinean bezala, eta puntua argitzeko.

BI IRUZKIN

Atal hau amaitu baino lehen, ikus ditzagun bi puntu, aurretik ikusitakoaren ondorio.

Bederatzi puntu-multzo

Hiru erro-mota eta beste hiru atzizki-sail izaki, bederatzi puntu-multzo bereiz ditzakegu euskaraz, nolako erroa eta atzizkia elkartzen diren kontuan hartuta. Hurrengo atalean ikusiko dugu zer-nolako legearen arabera osatzen den bakoitza.

Puntu laburra eta puntu luzea

Bigarren atalean aurreratu dugunez, bi puntu-mota nagusi ditugu euskaraz: puntu laburra eta puntu luzea. Baina, aldi berean, hitz horiek nahasbide ere izan ditzakegula aurreratu dugu, eta nahasbidearen arriskua non dagoen esan ere bai: puntu laburrak izan ditzakeela puntu luzeak baino silaba gehiago, eta alderantziz; esaterako, silaba t'erdia izan dezakeela puntu laburrak (**ian: biharamunian, batian, itzalian, gainian, trukian**) eta silaba erdi luzeak (**ai: ai, ezkongai, bai, jai**). Eta argibide bat erantsi dugu azkenean: labur edo luze izatea ez dagokio puntu osoari, puntuaren erroari baizik.

Hirugarren atal honen amaieran garbiago dago bigarreanean aurreratu. Aurreko adibide beroiek lagun diezagukete argiago ikusten: silaba t'erdiko puntua dute **biharamunian, batian, itzalian, gainian** eta **trukian** oinek, baina biak atzizkiari dagozkionak; silaba erdiko puntua dute **ai, ezkongai, bai** eta **jai** oinek, baina erroari dagokiona. Horrexegatik deitu diogu lehenengoari laburra: puntua ez delako oinen erroa iristen; eta horrexegatik bigarrenari luzea: puntua erroa ere iristen delako. Dena den, hau are gehiago xehetu beharra dago; eta horrexetara goaz laugarren atalean.

ETA OHAR GARRANTZIZKO BAT

Oro har ari gara txosten honetan: xehetasun eta ñabardura guztiguztiak aipatu gabe. Eta halaxe ihardun dugu hirugarren atal honetan ere, ezinbestean. Eta horrek bere arriskuak ditu, esandakoak estu-estu hartuz gero. Horrexegatik gaude hemen ohar garrantzizko bat erantsi beharrean, lehentxeago ikusitakoaren harian.

Oro har, bikoitza da puntua: erroz eta atzizkiz osatua. Baina horrek ez du esan nahi, jakina, oin guztiek berdinak izan behar dutenik erroz eta atzizkiz; ezta beti errodunak eta atzizkidunak izan behar dutenik ere.

Adibidez, puntukideak dira **batean, betean** eta **katean** oinak; ez, ordea, errokideak eta atzizki berekoak: bat-ean, bet(e)-an, katea-n. Oro har

ari garenez, gehien erabiltzen diren oinen arabera azalduko ditugu hemen azaldu beharrekoak. Kasu horretan, esaterako, **te** erroduna joko dugu puntua eta **AN** atzizkiduna, nahiz eta badakigun ez dela horrela.

Era berean, puntukideak dira **kontentuz**, **Jesus**, **aingeruz** eta **kantuz** oinak ere; eta puntu laburrekoak, aurreraxeago ikusiko dugunez. Baina ez daude laurak erroz eta atzizkiz osatuak; bai, **kontentu-z**, **aingeru-z** eta **kantu-z**; ez, ordea, **Jesus**, jakina. Hala ere, **u** erroz eta **S** atzizkiz osatuta baleude bezala jokatzen dute, eta halaxe azalduko ditugu.

4. PUNTU-ARAUAK

Euskal puntugintzak bere arauak ditu: bertsolari, kantagile eta abarrek erabiliak. Arau horiek adieraziko ditugu atal honetan, baina berriro ere bertsogintzari begira.

Puntu-arauak ematean, ezinbestezkoa da, noski, euskal puntuaren ikuspegitik egitea. Horrexegatik saiatu gara aurreko ataletan, hain zuzen, euskal puntuaren bereizgarriak atzematzen eta behar hainbat bereizketa egiten.

Puntu-erroen arabera egindako sailkapena erabiliko dugu hemen ere. Beraz, hiru puntu-multzo bereiziko ditugu, baina lehen ez bezalako ordenan: 1) **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuak, 2) kontsonantez amaitutako erroa duten puntuak eta 3) **a** bokalez amaitutako erroa duten puntuak.

Puntu-multzo bakoitzean, bestalde, arestian aipatutako hiru atzizki-sailak bereiziko ditugu.

Eta motaz mota eta sailez sail izango ditugu gogoan, jakina, bi puntu-mota nagusiak: puntu laburra eta puntu luzea.

“A” EZ BESTE BOKAL BATEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

Honako puntu-multzo honetan ageri da nabarmenen, noski, puntu laburraren eta luzearen desberdintasuna. Horrexegatik azalduko ditugu berex: laburrak lehenik, denak jarraian, eta luzeak ondoren.

Puntu laburra

A ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuetan, puntu laburrak nahikoa du erroaren azken hotsa kideko izatea, bai atzizkirik ga-

beko puntuetan, bai **a** eta **ak** atzizki dutenetan eta baita beste atzizkiren bat duten puntuetan ere. Ikus ditzagun banan-banan.

Atzizkirik gabeko puntuetan

“Emezortzi serore” kanta dakar Orixek bere “Euskaldunak” poeman. Hiru bertsoetako bigarrenak atzizkirik gabea du puntua eta **i** bokalez amaitua erroa. Eta **i** horixe da ahapaldiaren puntua.

Uju jupa labirulena, jupa jupa beti,
odei guzien azpiti, sasi guzien gaiñeti.
Sorgin oroin Errege da Akelarren jarri.
Jupa erran dezagun, beti bizi bedi.

(16, 133. or.)

A eta AK atzizki duten puntuetan

“Emezortzi serore” kanta bereko hirugarren bertsoa dugu, berriz, honako hau, lehenago ere aipatu duguna:

Oillo beltz eder orrek daukan egitea!
Emakume zârrenak sorgin biurtzea.
Karakak egin eta, aren arroltzea
bero-bero da, baiñan laister du oztea.

(16, 133. or.)

Ikus daitekeenez, **ea** du bertso horrek puntu: **e** erroz eta **a** atzizkiz osatua. Beraz, atzizkirik gabeetan bezala, erroaren azken hotsa soilik da puntuaren zati. Berdin gertatzen da, esaterako, Elizanbururen “Ikusten duzu goizean” sortako bertso honetan ere:

Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,
ahaxe eta ergiak,
bi idi handi, kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak
nereak dira guziak.

(12, 73. or.)

Beste atzizkiren bat duten puntuetan

Jose Ignazio Aranaren “Tratado de métrica vasca” lanetik hartu dugu, dagoen-dagoenean, honako herri-kanta hau:

Nor ez da zoratuco
Atseguñ-contentuz
Icusi ezquerzotic
Aurcho eder Jesus?
Inguraturic dago
Belen-en aingueruz
Arin datoz artzayac
oidu eta cantuz.

(17, 134. or.)

Errepara diezaiegun oinei: **uS** dute puntu, **u** erroz eta **S** atzizkiz osatua, nahiz eta **Jesus** oinak ez duen horrelako zatiketarik onartzen, jakina (gogora hirugarren ataleko azken ohar garrantzitsua). Beraz, atzizkirik gabeetan eta **A** eta **AK** atzizkidunetan bezala, erroaren azken hotsa soilik da bertso horren puntuaren zati.

Berehala itzuliko gara berriro ere puntu honetara.

Puntu luzeak

A ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuetan, bere erroan beti ditu kideko gutxienez azken bi hotsak errima luzeak (eta hirurak honako errodun hauetan: **STe**, **STi**, **STo**, **STu**). Eta hala da atzizkirik gabeko puntuetan, eta **a** eta **ak** atzizkidunetan, eta baita beste atzizkiren bat duten puntuetan ere. Ikus ditzagun banan-banan.

Atzizkirik gabeko puntuetan

Hona hemen, adibidez, Bilintxen bertso ezagun bat:

“Dama polita zera,
polita guztiz, ai!
Bañan alare zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biyok!
Esan zadazu bai!”

“Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Ja-jai!”

(24, 220. or.)

Ikus daitekeenez, **ai** du puntuak erro, eta atzizkirik gabea da. Beraz, bi hots kideko ditu.

Beste honako bertso honek, berriz, **Ste** du puntu. Lazkao Txikik kantatua da bat-batean, atariko txakurra gai izaki:

Txakur maitea ni etortzean
gelditu da oso triste,
kiñu ta abar nik esan diot:
“berriz’e banator laiste”;
ate ondoan gaixoa an da
nola jai ta nola aste,
eskolik ez du baiñan badaki
zenbait pertsonak ainbeste.

Hiru hots kideko ditu puntuak bertso horretan, **Ste** puntu-errokoa izaki.

A eta AK atzizki duten puntuetan

Manuel Lasarterena da honako bertso hau, “Nere sorterria” sailetik hartua:

Ez dit kezkarik eman iñoiz nun
sortu nintzan esateak,
ainbesteraño poztu izan nau
Leitza’koa izateak;
an ditut txiki-denboran egin
nituen lagun maiteak,
nere biotza kontsolatzen du
aien artera joateak,
beti zabalik billatzen ditut
erri artako atek.

(6, 45 or.)

Ikus daitekeenez, **teak** puntukoa da bertsoa (zehatzago esateko, **ateak** puntukoa, **maiteak** oinaren **i** hori gora-behera). Beraz, bi hots ditu gutxienez puntuaren erroak: **te**.

Beste honako bertso honetan, berriz, hiru hotseraino iristen da puntu-erroaren kidetasuna, puntu-erroa **STi** denez. Ezaguna da bertsoa, Jon Lopategik 1989ko txapelketa nagusian kantatua:

Ondo betea jarri genuen
 jan edaritan saskia,
 subentziotan hornitu ere
 ibilera garestia,
 bion bihotzak sentitzen zuen
 esperantzaren izpia,
 Everest gaina ia eskuan,
 ibilera amestia,
 baina ozpina agertutzen da
 aienatu zen eztia,
 hargatik nire abestia,
 sentimentutaz bustia,
 Everest punta genun amesa,
 hura gendun eguzkia,
 baina laguna eroritzean
 itzali zaigu guztia.

(15, 242. or.)

Beste atzizkiren bat duten puntuetan

Txirritaren bertso bat izan dezakegu honako adibiderik argiena. Bi ezezik, hiru hots berdin ere baditu (lau hotseraino ere iristen da berdintasuna hiru oinetan) puntu-erroak: **rti**, hain zuzen. (Oin hauek, bestalde, sarri samar errepikatzen dira Txirritaren bertsoetan):

Milla zortzireun larogei eta
 amairugarren urtian,
 landaretxo bat jαιο da Irun'go
 Bidasoa'ko partian;
 ni bizi naizen palaziotik
 ezta leku apartian,
 ia itoan ibilli naute
 iru atsoren artian.

(18, 266. or.)

Bertso-sail berekoa da beste honako hau ere:

Aur gaiso ori or agertu da
 urrikaltzeko moduan,
 estimazio aundirik gabe
 bere amaren onduan;
 arentzat ere ez dira izan
 gusto guziak munduan,
 enpeño batez biartuta ere
 ez daki aita nor duan.

(18, 267. or.)

Berriro ere bi hotsekoa da, gutxienez, puntu-erroaren hots-kideta-suna; eta hirura ere iristen da bi oinetan.

Berdin jokutzen dute puntu luzeko bertsolari guztiek. Edozein puntu-atzizki erabilita ere, gutxienez bi hots berdinez edo kidekoz osatuko dute puntua, **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duenean, puntu laburreko bertsolari eta kantagileek ez bezala.

KONTSONANTEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

Aurreko puntu-multzoan ez bezala, neurri batean kidekoak dira mota honetako puntu luzeak eta laburrak. Erabat kidekoak dira atzizkirik gabeetan eta antzekoak **A** eta **AK** atzizkidunetan, nahiz eta desberdinak izan gainerakoetan.

Horrexegatik, elkarren ondoan aurkeztuko ditugu adibideak, puntu laburrekoak lehenik eta luzekoak ondoren, lehen erabilitako sailkapenari jarraiki.

Atzizkirik gabeko puntuetan

Kontsonantez amaitutako erroa duen puntuak, bai laburrak eta bai luzeak, beti ditu gutxienez azken bi hotsak kideko, atzizkirik gabe denean.

Hona hemen puntu laburreko ahapaldi bat. Berriro ere Orixek "Euskalduna" poeman dakarren "Emezortzi serore" kanta dugu adibide-iturri. Honela dio lehen bertsoak:

Emezortzi serore eta bortz emagin,
buruz agindu eta sartu dire sorgin.
Uxta egiten dute larunbat gauerdin,
erratz-girten gaiñean zaldiz doazanin.

(16, 133. or.)

Bestalde, oso ezaguna da Lazkao Txikiren bertso hau, 1967ko txapelketa nagusian, baserri hutsari kantatua:

O, baserritxo, artuko dezu
biotz berrenetikan min,
eskerrak mirik ez dezun eta
ezin dezun gaur itzegin;

zenbait fameli azi dezuen
 Jainkuak bakarrik jakin,
 orain bakarrik uzten zaituzte,
 ondotik danak aldegin.

(4, 76. or.)

Argi dagoenez, bi bertsoak dira puntuz berdinak. Are gehiago: bertso horiekin bakarrik ez dago jakiterik zer-nolako puntu-mota erabili ohi zuten kantagileak eta Lazkao Txikik. (Gainerako bertsoei esker dakigu, hain zuzen, puntu laburra erabili zuela kantagileak eta luzea Lazkao Txikik.) Eta hala gertatzen da beti sail honetako bertsoen puntuekin; berdinak baitira puntu laburrekoak eta luzeokoak.

A eta AK atzikia duten puntuetan

Puntu-erroa kontsonantez amaitu eta **a** edo **ak** atzikia duen puntu luzeak beti ditu kideko bere erroaren azken bi hotsak. Puntu laburrak ere bi hots kideko izaten ditu bere erroan, baina ez beti.

Hona hemen Nemesio Etxanizen kanta ezagun baten hasiera. Bertso hau bakarrik aztertuz ez dago jakiterik puntu laburra edo luzea erabili zuen egileak:

Ormatxoriak negu gorrian
 ez du atsegin elurra,
 zerua goibel, kabia otza
 ta janari gabe lurra;
 ai, maite nere biotzak duan
 zure otzaren beldurra.
 Biontzat kabi bat berotzeko
 bilduko nuke egurra.

Beste atzikiaren bat duten puntuetan

Puntu-erroa kontsonantez amaitu eta **A** edo **AK** ez beste atzikiaren bat duen puntu luzeak beti du kideko, gutxienez, bere erroaren azken hotsa, puntu laburrak ez bezala.

Lehen ere esan dugunez, puntu laburra erabili zale dugu Joan Bautista Elizanburu. Baina, joerak joera eta gustuak gustu, bertso gutxi izango da, noski, haren honako hau baino ezagunagorik:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe ttipitto aintzin xuri bat
lau haitz-ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean?..
Han bizi naiz ni bakean.

(12, 73. or.)

Errepara diezaiegun lehen lau oinei. Puntu-atzizkia besterik ez dute hoskideko, puntu luburreko izaki: goiz-**ean**, den-**ean**, gain-**ean**. Baina bada besterik ere. Har ditzagun azken hiru oinak: ate-**an**, alde-**an**, bake-**an**. Puntu laburrekoak dira hauek ere, baina bokalez amaitua dute puntu-erroa. Eta gorago ikusi dugu nola osatzen den horrelakoetan puntua: puntu-erroaren azken hotsetik hasita.

Beraz, zer gertatu da bertso horretan? Elkarrekin azaltzen direla bertso berean, elkarren puntukide diren oinetan, bokalez eta kontsonantez amaitutako puntu-erroak. Behin baino gehiagotan gertatzen da berdin puntu laburreko bertsoetan. Hauxe geratu zaigu esan gabe lehen-txeago, **a** ez beste bokal batez amaitutako erroa duten puntuak aztertu ditugunean. Eta berriro itzuliko gara hona, **a** bokalez amaitutako erroa duten puntuak aztertzean. Izan ere, **A** eta **AK** ez beste atzizkiren bat eranstea, elkarrekin nahasian joan baitaitezte erro desberdinetako puntuak, baldin eta puntu laburrak badira.

Bestela gertatzen da, ordea, puntu luzeko bertsoetan; ez baitira puntu-erro desberdinetako puntu-erroak nahasten. Bere lekuan aztertu dugu bokalez amaitutako puntu-erroaren osakera. Ikus dezagun orain nola osatzen den puntua, kontsonantez amaitutako erroari **A** eta **AK** ez beste atzizkiren bat eranstea:

Nola ibiltzen giñan
sasoi gendunian,
gogoratutzen bati
zartu danian;
nekatzeko bildurrik
batere etzanean,
etzan gabe ere berdin
iru egunian;
alare lenian
jarraitu lanian
sasoi onenian
da umore onian,
gorputz-aldi bat ona
zeguanian.

(7, 49. or.)

Horra hor, lehentxeago aurreratu dugunaren adibidea: puntu luzea denean, kontsonantez amaitutako erroari **A** eta **AK** ez beste atzizki bat eranstea, puntuaren zati dela erroaren kontsonantea ere. Uztapideren bertso horretan, esaterako, **nian** da puntua: erroaren **n** kontsonanteaz eta **IAN** atzizkiarekin osatua.

“A” BOKALEZ AMAITUTAKO ERROA DUTEN PUNTUAK

A bokalez amaitutako erroa duenean ere, batzuetan berdina eta bestetan desberdina osatzen da puntua, luzea edo laburra izan. Ikus dezagun lehenik luzea eta ondoren laburra.

Puntu luzea

Oso lege errazaren arabera osatzen da **a** bokalez amaitutako erroa duen puntu luzea: beti azken hiru hotsak kideko izaten ditu erroan, bai atzizkirik gabe doanean eta bai atzizkiduna denean ere.

Adibide berak balio lezake, hain zuzen, atzizkirik gabeko puntuarentzat eta **A** edo **AK** atzizkidunarentzat; berdina baitira biak formaz. Basarriren bertso bat aukeratu dugu: 1989ko bertsolari-txapelketa nagusia, Jon Lopategiri txapela jazerakoan kantatua:

Ekarri naute garaileari
txapel eder bat jaztera,
bertsolariok jarrai gogotsu
herri batetik bestera,
gure lurrean guk ez daukagu
zertan egon buruz bera,
une honetan aitor dezagun
bagera edo ez gera,
bertsolaritza bizi dan arte
biziko baita euskera.

(15, 313 or.)

Uztapiderena da, berriz, hurrengo bertsoa, “San Juanak” sailekoa, **A** edo **AK** ez beste atzizki batez osatutako puntuaren adibidetzat aukeratu:

Garagarrillen ogei ta irua
oi da San Juan bezperan,
oitura onak jarraitu bear
nola sinismendun geran.

Au illunabar aldera edo
 eguzkiaren sarreran
 egin izan da, ta ez gaiñera
 iñorentzako galeran;
 oitura onek segitzen du gu
 gazte giñaneko eran.

(7, 212. or.)

Puntu laburra

Oso lege errazak agintzen du, era berean, **a** bokalez amaitutako erroa duen puntua laburra denean ere: gehienetan —baina ez beti— kideko izaten ditu erroan azken hiru hotsak, bai atzizkirik gabe doanean eta bai **a** eta **ak** atzizkiduna denean ere.

A bokalez amaitutako errodun puntua, laburra denean eta aipatu berri ditugunak ez bezalako atzizkiren bat daramanean, nahasian joaten da bestelako erroa duten puntuekin.

5. ESTILISTIKA

Tradizioak ez du iraupen huts esan nahi, transmisio baizik. Eta transmisioak hauxe dakar berekin: lehena ikasi, norberegianatu eta bertortzea. Tradizioari esker, orainaldian txertatzen da lehena, geroaren eskuetan uzteko. Horrexegatik iraupena eta aldaketa da; bizia eta bizitza bezalako: iraunkorra eta aldakorra aldi berean.

Horrela ulertu behar dugu bertsoaren (eta puntuaren) teknika ere. Tradizioaren baitan jaso eta ikasia dugu, eta tradizio horren baitan erakutsi eta irakutsi beharra: batetik iraunkor eta bestetik aldakor.

Aurreko ataletan ikusiak ditugu puntuaren bi alderdi horiek: iraukortasuna eta aldakortasuna. Saiatu gara aldeak azaltzen eta sistematizten, eta ahal den neurrian elkarrengana hurbiltzen. Orain bertsolari bakoitzak du hitza. Honi dagokio, izan ere, tradizioz jasotako hori ikasi, bereganatu eta erabiltzea; eta, are gehiago, bere estilo propioz bersortzea.

Horrexegatik, estilistikaz ihardungo dugu azken atal honetan. Puntu-erabiltzaile guztiek ez dute puntua berdin erabiltzen. Hor daude tradizioak, arauak, legeak, eskolak, joerak...; eta hor dago gaur egun zabalduen dagoen puntu-mota ere. Baina hor daude, era berean, bakoitzaren erabilera, estetika, estiloa eta aukera ere, jaso duenaz norberak landuta-

koaren emaitza. Izan ere, gutxieneoak markatzen dituzte arauak eta legeak. Norberaren esku geratzen da, hain zuzen, gutxieneo horiek loka-be utzitakoa lantzea.

Norberak erantsitako horretaz ihardungo dugu atal honetan: gutxieneo arau horietaz nola baliatu, nola jantzi eta dotoretu puntua...

Puntua: arau eta baliabide

Ahozko literaturatik dator puntua: ez dago bertsoarik punturik gabe, puntudunak dira esaera zahar asko ere. Literatura idatziak bereganatu egin zuen gero puntua, baina puntuaren egitekoa aldatuz, neurri batean behintzat.

Ahozko literaturan, baliabide mnemoteknikoa da batez ere puntua: bertsoak gogoan errazago hartzeko erabiltzen den baliabidea; baina sortze-baliabidea ere bada: bertsoak errazago sortzeko erabiltzen dena. Pixkana-pixkana, baliabide estetiko bihurtuko da errima literatura idatzian: poemak-eta apaintzeko baliabide.

Ahozko literaturan beharrezko baliabide da puntua. Literatura idatzian, berriz, gero eta apaingarriago da errima; horrexegatik gero eta baztergarriago gertatzen ari da, traba egiten duen araua den neurrian.

Puntu luzea eta laburra

Aurreko ataletan ikusi ditugu bi puntu-motak. Eta tarteko puntu-motaz hitz egiteko aukera ere izan dugu bigarrenean. Garbi dago, noski, puntu luzea nagusitu dela ia erabat gaur egunean. Baina ez da ahaztu behar, jakina, bizirik dagoela oraindik ere puntu laburra eta hor izango dela beti tarteko puntu-motari bideak zabalduz.

Puntua luzeagoatzen

Baina puntu luzea laburtzeko joera bezain handia da gutxienez kontrako: puntu luzea luzeagotzekoa.

Horretan maisu dugu Manuel Lasarte. Eta eragin handia izan du gero haren betsokerak! Hona hemen, esaterako, Lasartek bere aitari jarritako bertsoa:

Eskol-aldetik etzan

gizon jakintsua,
 euskera bakarrik zan
 beraren mintzua;
 eldu zitzaionean
 eriotz mintsua,
 betiko ixildu zan
 guraso zintzua,
 frutu asko emandako
 arbola zaintsua.

(6, 53. or.)

Nahikoa zuen, noski, **Zua** puntuarekin; baina bi hots gehiago erantsi dizkio: **in**. Urrutirago doa, berriz, “Mutil koskorretako bizitza” saileko honako bertso honetan:

Bizitza diot mutil
 koxkorretakua,
 izan ez arren buru
 pixkorretakua,
 nola zan pobrea ta
 kaxkarretakua
 gu jaio giñan mendi
 baxtarretakua.

(6, 57. or.)

Bertso jarri horietan erakutsitako joera bera zuen Lasartek bat-bateko bertsoetan; eta halaxe dute haren bidea landu dutenek ere. Bestalde, nahiz eta beste bidetik izan, Amurizaren bertsokerak ere badu zerikusirik puntua luzetzearekin.

Puntua eta euskararen erabilera

Gogora ditzagun Xalbador zenaren hitzak. Honela dio puntuaz (“rima” hitza darabil berak) ari delarik:

“Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzegi izaiteagatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia,
 maitatzen baitut bizia.

Bizia’rekin ongi joanarazi nahiz, erran du horrek *hiltzia*, hiltzea delarik hitz xuzena. Poto egitea baino lotsagarriago zaut eni hori. Poto egi-

ten duenak, ez du nehor enganatzen; hura agerian gelditzen da. Aldiz, *hiltzia* erran duenak, enganatu nahi izan du.

Holako zerbait ezin bertzean egin izan ez duen pertsularirik ez di-taike; bainan zer egiten duten ongi dakitela eta noiz nahi egiten dutenak badira.

Pertsu idatzietan ere agertzen da maiz huts hori. Han oraino itsu-siago egiten du.

• Badakit ber horier etzaiotela bekatu; baina nik ez dut hori onartzen. Denek behar dugu gure hizkuntza ongi ahozkatu, eta pertsulari batek bietan.”

(8, 59-60. or.)

Iritzia garbi eta argi emana dago. Baina bat-bateko bertsogintzan bertsolari askok jokutzen dute bestela, nahiz eta bertso jarrietan gehiagok aintzat hartu Xalbadorren iritzia.

Dena den, bego hemen, puntua landu nahi duenarentzat bide-erakusle.

Puntu atzizkidunak

Aurreko ataletan ikusi dugunez, sarritan erabiltzen dute bertsolariek puntu atzizkiduna. Horrelakoetan badago bertsoa itsusteko arriskurik, tentuz ibili ezean: atzizki bera erabiliz osatzea bertso bateko puntu guz-tiak. Esaterako, honela: **aitari, amari, etxeari, kantuari...; edertasuna, alai-tasuna, erraztasuna, zorrozatasuna...; naizelako, dalako, geralako, diralako...** Bertsolari bakoitzaren esku dago berdintasun aspergarri eta errazegi hori apurtzea.

Potoarekin jolasean

Adierazia dugu zeri deitzen zaion bertsotan poto egitea: esanahi bereko hitz bera erabiltzeari bertso bateko puntuan behin baino gehiagotan; eta erantasia dugu ez dela poto, ordea, esanahi ezberdineko hitza erabiltzea, nahiz eta hitz bera izan formaz.

Oso ezaguna da, esaterako, Goiburu bertsolariak Zepai sari batean “Bertsolari onena zein den” galdeari erantzunez kantatutako bigarren bertsoa. Lehenengo bertsoan, “Manuel Lasarte” erantzun eta gero, honela osatu zuen hurrengoa:

Leitzan jaiotako Orion
bizi dana erriz,
parekorikan ez du
rima eta neurritz;
denok txoratzten gaitu
bere bertso berriz,
ao-sapai ederra
eztitsua, berriz,
ez dakit olakorik
sortuko dan berriz.

(14, 102. or.)

Horra hor, **berriz** oina hiru aldiz errepikatua, baina esanahi ezberdinez. Eztabaida luzea ekarri zuen bertso horrek: bertsolariak poto egin zuen ala ez. Epaia garbi geratu zen: bertso horretan ez dago potorik, nahiz eta **berriz** oina hiru aldiz erabili; hiru oin horiek ezberdinak baitira esanahiez.

Eta besterik ez. Badu bertsolari bakoitzak aukerarik, bere puntua landu eta erabiltzeko. Aurreko ataletan arauak eta legeak bezala, honako honetan ditu zenbait baliabide. Bere eskuetan du, aurerantzean, lehenetik datorkigun tradizioa ikasi, bereganatu eta bersortzeko aukera.